



Andoaingo Udala



UDAL KIROL INSTALAKUNTZEN ERABILERAN COVID19AREN PREBENTZIORAKO JARDUERA FISIKOA ETA KIROLETAKO UDAL KIROL ZERBITZUAREN PROTOKOLOA

Jarraibide orokorrak

Maskarilaren erabilpena

- Derrigorrezkoa maskarila aldioro jantzita eramatea.
- Kirol jardunean soilik kendu ahalko da maskarila.

Eskuak garbitzea

- Instalakuntzara sartzean, gel hidroalkoholikorik eskuak garbitu.
- Materiala erabiltzean, eskuak desinfektatu.
- Azalera ezberdinak ukitutzean, eskuak desinfektatu.

Gehienezko entrenamendu taldeak

- Talde bakoitzaren partaide kopuru gehienezkoa(kirolariak, entrenatzaileak, delegatuak,...) finkatuko da kirol mota eta instalazioen ezaugarri eta COVID-19 aforoak kontutan hartuz.
- Pertsonen arteko 1,5 metroko tarte mantentzea bermatuko da beti. Beharrezkoa bada, kasuan kasu, gehienezko kopurua murriztuz.



Kirol taldeentzako jarraibideak

Instalakuntzetara sarbidea

- Taldearen arduraduna taldearekin egongo da aldioro, sarrera momentutik irteera momentura arte.
- Taldeek, entrenamendu saioa hasi baino 5 minutu lehenago sartu ahalko dute dagokion kirol eremura joateko eta entrenamentua amaitutakoan zuzenean instalazioetatik irtengo dira.
- Talde bakoitzeko kideek, era ordenatuan sartu beharko dute eta:
 - o Maskarilla aldioro jarrita eraman.
 - o Gel hidroalkoholiko bidez eskuak garbitu.
 - o Elkarrengandiko 1,5 metroko distantzia errespetatu.
 - o Dagokion kirol eremura joateko ibilbidea errespetatu, kartel adierazleak eta instalazioetako langileen oharrak errespetatu.
 - o Eremu komunetan jende pilaketak ekidin, ibilbidean geldialdirik egin gabe.
 - o Eskura gera daitezkeen gainazalak ez ukitu.
- Sarbide espezifikoak, zirkulazioak eta komunen erabilera:

INSTALAZIOA	SARRERA	IRTEERA	KOMUNAK
ALLURRALDE	sarbidea Ubitarte harmailatik, ate berdea ezkerretara, Allurrerako sarrera kiroldegiaren atzeko ate grisetik.	Sarrerakoa alderantzizko noranzkoan	Harmailetako bainuak erabiliko dira, harmailetako eskaileretan gora.
UBITARTE	sarbidea harmailetatik, ate berdea ezkerretara eta zelaira jaitsi.	Sarrerakoa alderantzizko noranzkoan	Oraingoan, eta harmailetatik zuzeneko sarbidea egokitu arte, aldagelen eremuko zerbitzuak erabili ahal izango dira.



Andoaingo Udala

ARRATE			
KANTXA Pelotarien talde txikiak egoera normalako zirkulazioak. Beste taldeak:	Sarrera nagusitik	Harmailatik	Harmailetakoa
TATAMIAK	Sarrera nagusitik	Aldagelen aldeko ate	

Aldagelen erabilpena

- Entrenamendu saioetarako taldeek ezingo dituzte aldagelak erabili.
- Txapelketetan, aldagelak talde bisitariak erabili ahalko ditu soilik.

Talde bisitariarentzako aldagelen informazioa:

- *Maskarilla jarrita eduki behar da dutxatzeko momentuan izan ezik.*
- *Aldagela bakoitzean dauden distantzia markak errespetatu.*
- *Aldagela bakoitzaren gehienezko edukiera errespetatu.*
- *Erabilgarri jarritako dutxak bakarrik erabili.*
- *Motxilak uzteko prestatutako eremuan utzi.*

Entrenamendu saioak

- Saio bakoitzean parte hartutako kirolarien eta entrenatzaileen erregistroa gordetzea gomendatzen da.
- Entrenamendu saioak Udal Kirol Zerbitzuarekin adostutako ordutegia errespetatuz egin.
- Atsedean aldietan maskarilla jarrita eta elkarrengandiko 1,5 metroko distantzia mantendu beti.
- Erabilitako materialaren garbiketa eta desinfekzioa, taldearen ardura da.
- Jarduera eta ariketa indibidualak lehenetsi.
- Ez da ikuslerik ez gurasorik sartzeko aukerarik izango entrenamenduetan zehar.
- Kirolari bakoitzak bere ur botila indibiduala erabili beharko du, beste inorekin partekatu gabe.



Andoaingo Udala



- Talde bakoitzeko pertsona bakarrak biltegitik materiala hartu eta bertara bueltatuko du.

Lehiaketa eta txapelketak

- Etxeko kirol taldearen ardura izango da talde bisitariari eta epaileari Covid19 protokolo propioaren eta Udal Kirol Instalakuntzetakoaren berri ematea instalazioak erabiltzen hasi aurretik.
- Etxeko kirol taldeak izendatutako Covid19 protokoloaren arduradunak, jardunaldiaren garapena egokia izango dela bermatuko du.
- Ez da ikuslerik ez gurasorik sartzeko aukerarik izango.
- Talde bisitariak, bere arduradunarekin, lehiaketa saiorako erreserbatutako denbora baino 15 minutu lehenago sartu ahalko du instalakuntzako aldageletan.
- Aldagelak talde bisitariarentzat erreserbatuko dira.
- Talde bakoitzeko jokalariak aldioro entrenatzailearen zaintzapean egongo dira.
- Kirolari bakoitzak bere ur botila indibiduala erabili beharko du, beste inorekin partekatu gabe.